



**Mondragon  
Unibertsitatea**



**MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY**

# **IKASKETA PLANA ETA ARAUTEGI AKADEMIKOA**

Lidergo ekintzailean eta berrikuntzan Gradua  
2024-2025

2015eko ikasketa Planari aplikagarria (Rocket Model)

# AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>3</b>	
<b>2.</b>	<b>4</b>	
2.1.	Finlandiako hezkuntza eredua –“Metodo Finlandiarra esperimentatuko duzu”	4
2.2.	Nazioarteo esperientzia – “Bidaiak egingo dituzu, eta horien bitartez, hiritar globala izateko prestakuntza jasoko duzu”	5
2.3.	Taldean ikasi ( <i>Team learning</i> ) -“Taldean ikasiko duzu”	5
2.4.	Enpresa errealak ( <i>Team company</i> ) -“Zure enpresa propioa sortuko duzu taldean”	5
2.5.	Grina eta gogoia, zuek zarete zuen ikaskuntzaren protagonistak – “Ikastea, erronka zirrargarria izan daitekeela konturatuko zarete”	6
<b>3.</b>	<b>7</b>	
	Lidergo ekintzaile eta berrikuntzako GRADU Plana	8
<b>4.</b>	<b>ARAUTEGI AKADEMIKOA</b>	<b>9</b>
4.1.	IKASKETA PLAN BERRIAK	9
4.2.	KREDITUAK ONARTZEKO ETA TRANSFERITZEKO SISTEMAREN ARAU ESPARRUA	10
4.3.	IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA IKASLEEN EBALUAZIOA	14
4.4.	BEKAK ETA DIRU LAGUNTZAK IKASTEKO	19
4.5.	ESKOLA ASEGURUA ETA ERAKUNDEAREN ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURUA	19
4.6.	BEKABIDE	19

## **1. SARRERA**

Mondragon Unibertsitatea, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 30eko 4/1997 Legeak errekonozitu zuen, eta bere hasiera onartua izan zen 1997/98 ikasturterako, atzeraeraginezko izaeraz, Eusko Jaurlaritzaren 1999ko otsailaren 2ko Aginduaren bidez.

Mondragon Unibertsitatea Koop. Elkartea, gaztea da, baina bere sustraiak 1943an hasi ziren, José María Arizmendiarieta jaunak Eskola Profesionala sortu zuenean, hezkuntza eta ezagutza, gizartea garatzeko funtsezko motorra direla sinetsita. Gure Unibertsitatea osatzen duten hiru ikastetxeek urte askotako esperientzia dute: eskola Politeknikoa (Arrasate, 1943), Oñatiko Enpresa Eskola Teknikoa, ETEO (Oñati, 1960) eta Irakasle Eskola (Eskoriatza, 1978). Guztiek, gaur egun fakultate bihurtuta, hamasei titulu eskaintzen dituzte eta lau mila ikasle inguru biltzen dituzte. 2011. urtean laugarren fakultate bat batu zen, Gastronomía Zientzien Fakultatea.

Gainera, Unibertsitateak beste erakunde batzuen lankidetzat du, hala nola, MONDRAGON: *Humanity at Work*, Grupo Ulma Koop. Elkartea, Oñatiko Udala, eta LKS Koop. Elkartea. Guzti hauek, bere organo sozialetan bazkide laguntzaile gisa integratzen dira.

Mondragon Unibertsitatea Koop. Elkartea, MONDRAGON Humanity at Work talde kooperatiboan integratua dagoen Estatuko lehen unibertsitate kooperatiboa da, eta horrek, bere hezkuntza proiektuaren berezitasuna, nabarmentzen du.

Bestalde, MONDRAGON TEAM ACADEMY (hemendik aurrera, MTA) Enpresgintza Fakultateak daukan ekintziletza unitatea da. Hau, 2008an sortu zen, Team Academy Finland-en lankidetzarekin. MTAK bere ingurunea eraldatzea du helburu, taldean ekinez, eta balio kooperatiboetan eta ikaskuntza aktiboan oinarrituz. Testuinguru honetan, beste titulazio batzuen artean, Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Gradua (aurrerantzean, LEINN) eskaintzen da. Honen Araudi Akademikoa jarraian azalduko dugu.

## **2. GRADUAREN AURKEZPENA: LEINN**

Mondragon Unibertsitatean eskaintzen dugun lidergo ekintzailean eta berrikuntzan graduaren helburua da etorkizuneko graduatuak gaitzea enpresa berrien eta/edo negozio berrien sorreraren buru izan daitezen.

Gaitasun horiek, praktikan oinarritutako metodo baten bidez eskuratzen dira (-learning by doing- esperientzian oinarritutako ikaskuntza metodoaren bidez), bai eta talde auto kudeatuetan lan eginez ere. Hau gauzatuko da, gure ikasleek lehen egunetik sortuko dituzten enpresen bidez, benetako bezeroentzat lan eginez, eta aldi berean benetakoak diren proiektuekin.

Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Gradua, diseinatuta dago, lan egiteko modu naturala, taldean lan egitea den pertsonentzat, eta kultura berriak ezagutzeko, metodologia berriak esperimentatzeko eta atzerrira bidaiatzeko interesa dutenentzat.

Gainera, ikasleak espezializazio-eremu bat aukeratu ahal izango du, sortzen ari diren enpresa-sektore hauetako batekin lotuta: enpresa digitalak, zerbitzu aurreratuak, biozientziak eta gizarte-enpresak. Gainera, parte hartzaileak, sektoreko enpresekin lankidetzan arituko diren plataforma baten parte izango direnez, hauen oinarrizko ezaugarriak eta funtzionamendugakoak ezagutu ahal izango dituzte.

### **2.1. Finlandiako hezkuntza eredua –“Metodo Finlandiarra esperimentatuko duzu”**

Gure ikaskuntza-metodoaren jatorria, ekintzailetza-unitate honetan dago: Team academy -, talde-ekintzailetzaren irakaskuntza-komunitatea, Zientzia Aplikatuen Jyväskylä Unibertsitatean (Finlandia) jarduten duena. Aipatzen ari garen metodo hori 20 urte baino gehiagoz erabili da Finlandian, eta 2006an errekonozimendu berezia jaso zuen, Finlandiako Hezkuntzaren Ministeriotik.

Finlandiako hezkuntza-eredua gure programako hainbat kontzeptu eta tresnatan antzeman daiteke, hala nola autokudeaketan eta sormenean, elkarrizketa-espazioetan, ekiten ikasten duten taldeetan, komunitate-zentzuan, erantzukizun partekatuan edo lanerako espazio fisikoetan. Eredu hori, alde batetik, askatasunean oinarritzen da, eta, bestetik, norberaren erantzukizunean.

## **2.2. Nazioarteko esperientzia – “Bidaiak egingo dituzu, eta horien bitartez, hiritar globala izateko prestakuntza jasoko duzu”**

Enpresen munduko arrakasta, gero eta gehiago oinarritzen denez, mundu mailako herrialdeen arteko elkarrekintzan, eta nazioarteko merkatuetan jardutean, enpresek, ikuspegi globala duten profesionalak behar dituzte. Testuinguru horretan, gure graduak, herritar globalak prestatzen ditugu. Gure graduak, banakako truke-programa bat edukitzeko, eta taldearekin atzerrira bidaiatzeko aukera ematen du. Ikasle guztiek, ikaskuntza-bidaia bat egingo dute Europan bi hilabetez, ekintzaile gazteekin, ekintzailetza-ekosistemekin eta startup-ekin konektatuz. Halaber, "Learning journey" edo ikaskuntza-bidaiak esperimenteratuko dituzte Estatu Batuetako Silicon Valley eta Seattle bezalako lekuetara bidaiatuz, eta gutxienez, suspertzen dagoen herrialde batera joango dira (hala nola, Txina, India; enpresa berritzaileak bisitatuz, eta ekintzaile arrakastatsuen esperientzia ezagutuz.

## **2.3. Taldean ikasi (*Team learning*) -“Taldean ikasiko duzu”**

Gure ikasteko tresna nagusia taldea da: zuen taldea. Ikasle bakoitzak, hainbat taldetan lan eginez, parte hartu eta ikasi egiten du: bere enpresa edo Team Company, proiektu partekatuak, ikaskuntza-unitateak, kudeaketa-taldeak edo foroak. Bestela esanda: "Beste pertsona batzuekin elkar eragiten eta lan egiten ikasten dugu". Taldeetan lan egitean, ekintzailetza-gaitasunak praktikan jartzen ikasten dugu, hala nola negoziazioa, lidergoa, denboraren kudeaketa, konpromisoak hartzea eta komunikazioa. Talde guztiek dute entrenatzaile edo team coach bat. Team coach-ak taldean gertatzen denaren ikuspegi orokorra mantentzen du, eta badaki, taldearen ikaskuntza nola sustatu eta hauei nola lagundu, kasu bakoitza ezberdina dela kontuan hartuz.

## **2.4. Enpresa errealak (*Team company*) -“Zure enpresa propioa sortuko duzu taldean”**

Garapen pertsonalaren eta ikaskuntzaren gakoa, mundu errealarekiko etengabeko elkarrekintzean datza. Hau da, benetako enpresa bat sortu, eta benetako bezeroentzat eta benetako proiektuetan lan egin. Enpresa-munduari aurre egiten diogunean, irauteko eta arrakasta izateko modua aurkitu behar dugu. Ikasleak dira protagonistak, eta beren enpresak sortzen dituzte taldean, benetako bezeroekin harremanetan jartzen dira, eta eskaintzak zein zerbitzuak dauzkate aukeran. Zeregin horietan aholkatzen dieten cocheak eta irakasle adituak arduratzen dira prozesu hori babesteaz eta sustatzeaz, baina ez zuzentzeaz. Gure ikasleei aukera errealak eskaintzen diegu ekintzaile eta enpresari gisa, ikasteko ingurune seguru eta ezin hobean, enpresa-ingurunearekin dugun harremanari esker.

## **2.5. Grina eta gogoa, zuek zarete zuen ikaskuntzaren protagonistak – “Ikastea, erronka zirrargarria izan daitekeela konturatuko zarete”**

Zein da zuen pasioa? Zer egin nahi duzue zuen bizitzan? Zer behar duzue zuen amets pertsonala gauzatzeko? Gure abiapuntua beti da taldean ekiteko grina eta gogoa. Gure egitekoa da, taldeetan ikasten duten ikasleek, benetan pasioz esperimintatzea garatzen dituzten jarduerak.

### **3. IKASKETA PLANA**

Gure graduko ikasketa-plana lau ikasturtez osatutako ziklo bakar batean egituratzen da, 240 ECTS guztira.

Titulazio honetako graduatuek eskuratutako gaitasunak hiru kategoriatan sailkatzen dira. Kategoria bakoitzaren barruan 7 gaitasun biltzen dira, lankidetzako testuinguru batean ikasteko, lider izateko eta ekintzaile izateko beharrari erantzuten diotenak:

#### **A) Taldean ikastea**

1. Informazioaren teknologiak eta informatika-trebetasunak
2. Taldean ikasteko teknikak
3. Ikasteko metodo pertsonalak eta jarrerak (eredu mentalak)
4. Sormena
5. Nazioarteko ikuspegia
6. Komunikazio trebetasunak
7. Auto-orientazioa

#### **B) Taldean lideratzea**

8. Autokudeaketa-trebetasunak
9. Proiektuen kudeaketa
10. Taldeen lidergo-gaitasuna
11. Plangintza-teknikak
12. Coaching trebetasunak
13. Trebetasun estrategikoak
14. Erabakiak hartzea eta erabakitzea

#### **C) Taldean ekitea**

15. Kontsumitzailearentzako zerbitzua eta negoziazio eta salmenta-teknikak
16. Finantza-elementuen ulermena
17. Marketina
18. Berrikuntza
19. Ekintzaile baten trebetasun teorikoak eta modelizazio gaitasunak.
20. Sareak edo networking-aren somena
21. Oztopoak gainditzeko adorea eta borondatea

Ikasketa-plana modulu hauetan egituratu da. Modulu horiek unitate akademikoak dira, eta hainbat ikasgai dituzte:

1. Enpresak sortzeko eta kudeatzeko oinarriak.
2. Lidergoa eta ezagutzaren kudeaketa: banakako ikaskuntzaren garapena.
3. Ekintzailetza eta bezeroaren ikuspegia: ikaskuntza garatzea enpresan.
4. Berrikuntza Sarean, balioa sortzeko motor gisa: ikaskuntza komunitatean garatzea.
5. Herritar globalak.
6. Enpresak sortzeko prozesua eta espezializazioa.
7. Gradu amaierako proiektua.

## Lidergo ekintzaile eta berrikuntzako GRADU Plana

LEHENENGO IKASTURTEA					
Lehenengo seihilekoa	Mota	ECTS	Bigarren seihilekoa	ECTS	Mota
Enpresako ingelesa	OP	4 - Urtekoa	Enpresako ingelesa	OP	4 - Urtekoa
Enpresako ekonomia	OP	3 - Urtekoa	Enpresako ekonomia	OP	3 - Urtekoa
Informatika	OP	4 - Urtekoa	Informatika	OP	4 - Urtekoa
Enpresako zuzenbidea	OP	3 - Urtekoa	Enpresako zuzenbidea	OP	3 - Urtekoa
Enpresa matematikak	OP	3 - Urtekoa	Enpresa matematikak	OP	3 - Urtekoa
Ekintzailatza eta barne ekintzailatza I	D	3	Banakako ikaskuntzarako trebetasunak I	D	3
Lidergoa I	D	3	Produktuaren garapena I	D	3
Ezagutzaren kudeaketa I	D	3	Taldearen autokudeaketa eta kudeaketa I	D	3
Nazioarteko taldeak: Finlandia	D	5	Sare sozialen kudeaketa I	D	3
<b>GUZTIRA</b>		<b>31</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>29</b>

BIGARREN IKASTURTEA					
Lehenengo seihilekoa	Mota	ECTS	Bigarren seihilekoa	ECTS	Mota
Produktuaren ingeniariatza	OP	4 - Urtekoa	Produktuaren ingeniariatza	OP	4 - Urtekoa
Estatistika	OP	3 - Urtekoa	Estatistika	OP	3 - Urtekoa
Kontabilitatea	OP	3- Urtekoa	Kontabilitatea	OP	3- Urtekoa
Enpresako etika	OP	3 - Urtekoa	Enpresako etika	OP	3 - Urtekoa
Ekintzailatza eta barne ekintzailatza II	D	3	Pentsamendu estrategikoak I	D	3
Lidergoa II	D	3	Sorkuntza eta Berrikuntza I	D	3
Marketin I	D	3	Markaren kudeaketa I	D	3
Bezeroarentzako zerbitzua eta salmentak I	D	3	HAUTAZKOAK	H	8
Silicon Valley: USA	D	5			
<b>GUZTIRA</b>		<b>30</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>30</b>

HIRUGARREN IKASTURTEA					
Lehenengo seihilekoa	Mota	ECTS	Bigarren seihilekoa	ECTS	Mota
Espezializazio programa : Enpresak eta Ekintzaileak	H	5 - Urtekoa	Espezializazio programa : Ekintzaile Sozialak	H	5 - Urtekoa
Espezializazio programa : Esperientziaren ekonomia	H	5 - Urtekoa	Espezializazio programa : Industria zerbitzuak	H	5 - Urtekoa
Espezializazio programa: :Enpresa digitalak	H	5- Urtekoa	Espezializazio programa: :Enpresa digitalak	H	5- Urtekoa
Espezializazio programa: Biozientzia enpresak	H	5- Urtekoa	Espezializazio programa: Biozientzia enpresak	H	5- Urtekoa
Marketin II	D	3	Taldearen autokudeaketa eta kudeaketa II	D	3
Ekintzailatza eta barne ekintzailatza III	D	3	Banakako ikaskuntzarako trebetasunak II	D	3
Lidergoa III	D	3	Pentsamendu estrategikoak II	D	3
Ezagutzaren kudeaketa III	D	3	Sorkuntza eta Berrikuntza I	D	3
Bezeroarentzako zerbitzua eta salmentak III	D	3	Produktuaren garapena I	D	3
Aukerak suspertzen ari diren herrialdeetan: BRICS herrialdeak	D	6	Sare sozialen kudeaketa II	D	3
			Markaren kudeaketa II		3
HAUTAZKOAK	H	4	HAUTAZKOAK	H	4
<b>GUZTIRA</b>		<b>30</b>	<b>GUZTIRA</b>		<b>30</b>

LAUGARREN IKASTURTEA					
Lehenengo seihilekoa	Mota	ECTS	Bigarren seihilekoa	ECTS	Mota
Amaierako proiektua: sorkuntza berria	GAL	10 - Urtekoa	Amaierako proiektua: sorkuntza berria	GAL	10 - Urtekoa
Amaierako proiektua: sorkuntza berria	GAL	10- Urtekoa	Amaierako proiektua: barne ekintzailatza	GAL	10- Urtekoa
Amaierako proiektua: sorkuntza berria	GAL	10- Urtekoa	Amaierako proiektua: Erasmus	GAL	10- Urtekoa
Praktika espezializatuak enpresan	P	15	Praktika espezializatuak enpresan	P	15
Amaierako proiektua: memoria estrategikoa start-up	GAL	6			



HAUTAZKOAK	H	4		
GUZTIRA		35	GUZTIRA	25

### AUKERATU DAITEZKEEN HAUTAZKOEN ZERRENDA (3. mailako espezializazio-programa izan ezik)

Tailerra: berrikuntzaren kudeatzailea	H	4	Tailerra: berrikuntzaren kudeatzailea	H	4
Tailerra: lidergoa	H	4	Tailerra: lidergoa	H	4
Tailerra: taldeen coaching-a	H	4	Tailerra: taldeen coaching-a	H	4
Tailerra: marketing pertsonala	H	4	Tailerra: marketing pertsonala	H	4
Elkarrizketarako Txinera I	H	4	Elkarrizketarako Txinera I	H	4
Elkarrizketarako Txinera II	H	4	Elkarrizketarako Txinera II	H	4
Elkarrizketarako Txinera III	H	4	Elkarrizketarako Txinera III	H	4

## 4. ARAUTEGI AKADEMIKOA

### 4.1. IKASKETA PLAN BERRIAK

***Kredituak transferitzeko sistema europarra*** (*European Credit Transfer & Accumulation System*; hemendik aurrera, ECTS)

Ikasketen erreformak, "ECTS kreditua" terminoa, balio unitate berri gisa sartzen du, eta horren inguruan egituratzen da ikasketa plana. Irakasgai bakoitzak, balorazio bat dauka kredituetan. Kreditu bat, 25 eskola-orduren baliokidea da (presentzialak eta ez-presentzialak). Unibertsitateak ezartzen dituen ezagutzak eta konpetentziak baloratzeko eta ebaluatzeko sistemen arabera lortuko ditu ikasleak kredituak.

#### ➤ ***Moduluak, materiak eta irakasgaiak***

Ikasketa plan berriak, moduluak, materiak eta irakasgaiak bereizten ditu. Moduluak titulazioaren profilean definitutako konpetentzietan erantzuten dieten ikasgaimultzoak dira, eta jakintza arlo berari dagozkion ikasgaiak eta unitate tematikoak dira. Era berean, materiak, irakasgaiekin osatzen dira. Azken hauen programak, irakas gida honetan zehaztuko dira.

Ikasketa-planetan jasotako irakasgaiak honela sailkatzen dira:

**Oinarrizko prestakuntza:** Titulua atxikita dagoen jakintza adarrari dagozkion ezagutzen sarrerako irakasgaiak dira.

**Derrigorrezko eta Hautazko materiak:** Unibertsitateak ikasketa plan bakoitzean askatasunez ezartzen dituenak dira. Lehenengoak, ikasleak, nahitaez egin behar ditu, eta bigarrenak, unibertsitateek ikasturte bakoitzean eskaintzen dituztenak dira, ikasleak aukera ditzan, bere lehentasunen eta/edo interesen arabera.



## 4.2. KREDITUAK ONARTZEKO ETA TRANSFERITZEKO SISTEMAREN ARAU ESPARRUA

### > *Kredituen onarpena*

1. Kredituen errekonozimendua da, bai Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, ikasleak, **ikasketa ofizialetan** lortutako kredituen onarpena. Hauek, Ekintziletza eta Berrikuntzako Lidergoaren graduak irakaskuntzetan konputatuko dira, titulu ofizial bat lortu ahal izateko efektuetara.

Fakultate honek, beste unibertsitate batzuetan edo beste titulu batzuetan egindako irakaskuntzen kredituak onartu ahal izango ditu, ikasleak ikasitako ikasgaietara lotutako kompetentzien zein ezagutzen, eta ikasketa planean aurreikusitako artean, egokitasuna dagoenean; edo zeharkako kasuetan, irakastordua, ECTS kredituetan antzekoak direnean; gradu amaierako lanari dagozkion kredituak izan ezik.

2. Halaber, **unibertsitateaz kanpoko goi-mailako beste irakaskuntza ofizial batzuetan** egindako kredituak onartu ahal izango dira, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatutakoaren arabera.

ONARTUTAKO GUTXIENKO ECTS KOPURUA	ONARTUTAKO GEHIENKO ECTS KOPURUA
3	31

Nolanahi ere, onartutako gutxieneko unitatea ikasgaia izango da.

Onartutako kredituak, 1 eta 2 ataletan jasotakoa jarraituz, zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Onartu ahal izango dira, beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate-irakaskuntzetan egindako kredituak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan arabera.

ONARTUTAKO GUTXIENKO ECTS KOPURUA	ONARTUTAKO GEHIENKO ECTS KOPURUA
3	36

Nolanahi ere, onartutako gutxieneko unitatea ikasgaia izango da.

Kredituen onarpen hau posible izateko, ikasleak ikasitako ikasgaiei lotutako gaitasunen, ezagutzen eta ikaskuntzaren emaitzen, eta ikasketa-planean aurreikusitako arteko egokitzapena aztertuko da. Kredituak zeharkakoak direnean, irakastorduak, ECTS kredituetan, antzekoak izatea begiratuko da.

4. **Egiaztatutako lan eta lanbide esperientzia** onartu ahal izango da, **kreditu gisa ere**, eta kreditu horiek Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako gradu-titulua lortzeko zenbatuko dira, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Ikasleak, lan esperientzia agiri bidez egiaztatu beharko du, eta honako hauek aurkeztu beharko ditu:
  - Lan biziaren eguneratuaren laburpena.
  - Zuzendariaren edo arduradun gorenaren ziurtagiria, non eskatzailearen lanbide eta lan esperientzia egiaztatuko den. Bertan, gutxienez, jasoko dira: lanbide esperientziaren iraupena, eskatzailea aplikatu den lan esparrua eta lan jardunaren ezaugarriak .
  - Eskatzaileak berak egindako adierazpena. Bertan, azaldu beharko dira: garatutako lanbide jarduera, jarduera horren bidez eskuratutako lanbide kompetentziak, eskuratutako ezagutzak eta onarpena, zein irakasgairako edo irakasgaietarako eskatzen den.
- Gutxieneko onarpen unitatea, irakasgaia eta honi lotutako kompetentziak izango dira, eta ezingo da onartu, irakasgai bat osatzen ez duten ECTS unitaterik. Gradu amaierari dagozkion kredituak, ez dira eginkizun honetarako onartuko.
- Erabiliko diren irizpideak, kredituak onartzeko, lanbide esperientzia egiaztatuagatik, hurrengoak izango dira:
  - a) Unibertsitate-titulu ofizial bat izatea (espainiarra edo atzerrikoa)
  - b) Esperientzia profesionaleko denbora
  - c) Garatutako lanbide aktibitatean jarduteko modua; osoa (garatutako lanbide-jardueraren %100) edo partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50).
- Idatzizko eskaera osatzeko, elkarrizketa bat egingo zaio interesdunari. Elkarrizketa horretan, irakasgaiaren/ irakasgaien irakasleak/ irakasleek egiaztatuko du/dute ikasleak onarpenaren xede diren ezagutzak eta kompetentziak eskuratu dituela.

C atalean jasotako hiru irizpideen konbinaziotik, hurrengo taula sortu da, lanbide esperientzian behar den denbora jasotzen duena, ikasleek unibertsitate titulu ofiziala duten kasuetarako.

Kredituen onarpenerako eskatzen den denbora:

1. EGOERA.- KREDITUEN ONARPENA LANBIDE ESPERIENTZIAGATIK.  
(UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALIK GABEKO ESKATZAILEAK)

<b>ONARPEN UNITATEAK</b>	Dedikazio osoa (garatutako lanbide jardueraren% 100)	Dedikazio partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50)
Gutxieneko unitatea: 3 ECTS (eta lotutako kompetentziak)	8 hilabete	16 hilabete
Gehiengo unitatea: 16 ECTS (eta lotutako kompetentziak)	30 hilabete	60 hilabete

Enpresako praktikei dagozkien kredituak onartu ahal izango dira, baldin eta graduako kompetentziak eskuratu direla egiaztatzen bada; nahiz eta kompetentzia horiek, irakasgai jakin batzuei ezin izan esleitu, edo lanbide esperientzia nahikotzat jo ez arren, dagokion irakasgaiaren ECTS guztiak onartzeko.

<b>ONARPEN UNITATEAK</b>	Dedikazio osoa (garatutako lanbide jardueraren% 100)	Dedikazio partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50)
Gutxieneko unitatea: 5 ECTS	12 hilabete	24 hilabete
Gehiengo unitatea: 30 ECTS	78 hilabete	156 hilabete

3) eta 4) paragrafoetako kasuetan onartutako kredituak ez dira kontuan hartuko espedientearen baremaziorako.

2. EGOERA.- KREDITUEN ONARPENA LANBIDE ESPERIENTZIAGATIK.  
(UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALA DUTEN ESKATZAILEAK)

<b>ONARPEN UNITATEAK</b>	Dedikazio osoa (garatutako lanbide jardueraren% 100)	Dedikazio partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50)
Ikasketa-planeko irakasgaiei (eta hauei lotutako kompetentziei) dagozkien, 36 ECTS onartu ahal izango dira gehienez.	24 hilabete	48 hilabete

5. Ikasketa Planeko 6 ECTS onartu ahal izango dira gehienez, unibertsitateko kultura , kirol , ikasleen ordezkariak , elkartasun eta lankidetzak jardueretan parte hartzeagatik. Aurrekoaren ondorioetarako, Enpresagintza Fakultateak urtero argitaratutako dituzten aintzatespen hori jasotzeko aukera ematen duten jarduerak, eta jarduerak horietako bakoitzerako zenbat kreditu onartu daitezkeen. Adieraziko dituzte ere, jarduerak horietan parte hartu izana egiaztatuzeko mekanismoak.
6. Honako muga hauek ezartzen dira kredituen onarpenerako:
- ✓ Lanbide eta lan-esperientziatik, eta beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate-irakaskuntzetatik, gehienez ere 36 ECTS aitortu ahal izango dira.
  - ✓ Aurreko 2., 3. eta 4. puntuetan ezarritako kasuetan, onartutako kredituen gutxienezko kopurua, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren erabakiko da. Hala ere, ezarritako baldintzak beti egon behar dira gaindituta (irakasgai bati lotutako edukiak eta gaitasunak). Eskatutako baldintzak gainditzeko ez baditu, ez zaio krediturik aitortuko.
  - ✓ Gradu Amaierako Lana, ez da onartuko kredituen onarpenerako, atal honetan araututako kontzeptuaren arabera.

➤ ***Kredituen transferentzia***

Kredituen transferentziazat ulertzen da, ikasle bakoitzak jarraitutako irakaskuntzak, agiri akademiko egiaztatzaile ofizialetan sartzea, titulu ofizial bat lortzera eraman ez arren.

Kredituak, aurretik Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean egindako irakaskuntza ofizialetan lortutakoak izan daitezke.

➤ ***Espediente akademikoa***

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak jasoko dira; hau da, transferituak, onartuak edo gaindituak; eta kasu bakoitzean dagokiona adieraziko da. Onartutako kredituak direnean, honako informazio hau jasoko da jatorrizko irakaskuntzei buruz: Unibertsitatea (k), irakaskuntza ofizialak eta irakaskuntza horiek zein adarretakoak diren; lortutako materiak edota irakasgaiak; kreditu kopurua, eta ateratako kalifikazioa.

➤ ***Tituluaren Gehigarri Europarra***

Ikasleei emandako Tituluaren Gehigarri Europarrean, ikasleak, ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, dagokion titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak agertuko dira, (transferituak, onartuak edo gaindituak), ikasketa espedienterako zehaztutako espezifikazio berberekin.

### **4.3. IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA IKASLEEN EBALUAZIOA**

➤ ***Irakaskuntza Plangintza***

Fakultateko Zuzendaritzak baldintza berdintasuna zainduko du, ikastetxean ematen diren tituluak eta espezialitateak lortzera bideratutako irakaskuntzen kudeaketan.

Fakultateko Zuzendaritzak behar besteko aurrerapenarekin onartu eta argitaratuko du urte akademiko bakoitzerako eskola-egutegia.



Ikasturte bakoitzeko matrikula-epea ireki aurretik, Fakultateak ikasleen eskura jarriko du ematen den irakasgai bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa:

- Helburuak, programak eta oinarrizko bibliografia
- Ebaluazio-sistema
- Metodologia
- Oporraldia
- Beste irakaskuntza-jarduera batzuk

Gainera, interesgarritzat jotzen diren datu guztiak erantsiko zaizkie hauei.

Eskola teoriko eta praktikoen ordutegietan, iraksgaiak ematen dituzten irakasleen izenak agertuko dira.

### ➤ **Gorabeherak ebaluazio probetan eta lanak egitean**

Ikasleak, azterketa bat edo beste edozein ebaluazio proba egiten duen bitartean, ezingo du irakasleak/ek baimendu gabeko materiala erabili. Bestalde, gailu elektronikoak erabiltzen baditu, edo informazioa lortzeko edo trukatzeko, beste pertsona batzuekin edozein ekintza egiten badu, baimenik gabe, honek, ondorioak ekarriko dizkio, eta modulu, materia eta irakasgaia “suspendituta” gera daitezke. Honetaz gain, ikasleari, diziplina erantzukizuna eska dakioke.

Lanak egitean, plagioa, autoplagioa eta originala ez den materia erabiltzea, Internetekoa barne, egilea aipatu gabe, edo kasua bada, egilearen baimenik gabe, ondorioak izango ditu, eta modulu, materia zein irakasgaia “suspendituta” gera daitezke. Honetaz gain, diziplina erantzukizuna eska daiteke.

Aurreko ataletan araututako egoeraren bat gertatuz gero, dagokion programaren batzorde akademikoak, horren berri emango dio graduondoko irakaskuntzen ardura duen errektoreordetzari.

### ➤ **Asistentzia falta azterketan, ebaluazio aktibitateetan eta ebaluaketan**

Arau orokor gisa, ikasleren batek, azken ebaluaketan edota ebaluatu behar diren aktibitateen %100an parte hartu ez badu, bere kalifikazioa “ez gainditua” izango da.

Unibertsitatean azterketa edo ebaluazio proba bat ez egitea, eta deialdiaren egun aldaketa lortzea, oso salbuespenezkoa da, eta egoera berezietan bakarrik gertatzen da.

- a) Ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasuna, eta, beraz, fisikoki bertaratzea edo proba egitea eragozten duena.
- b) Proba egin aurreko 48 orduetan lehen eta bigarren mailako harremana duen senide bat hiltzea edo oso larri egotea.
- c) Frogara joatea eragozten duten zitazio judizial atzerazina.

Beste edozein arrazoi baztertuta dago. Data aldatzeko eskaerak laborategiko arduradunaren bidez egingo dira, eta graduko tech skill-en koordinaziora bidaliko dira. Koordinazio horrek ahalik eta epe laburrenean erantzungo du.

➤ **Lehenengo ikasturtea. Matrikula lehen aldiz.**

Ikasle sartu berriek lehenengo urteari dagozkion kreditu guztietan matrikulatu beharko dute nahitaez.

➤ **Ondorengo matrikulak**

Iraupen-baldintza gainditu ondoren, ikaslea maila bakoitzari dagozkion kreditu guztietan matrikulatu beharko da, salbu eta titulazioa amaitzeko geratzen zaion kreditu kopurua ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada; kasu horretan, kreditu guztietan matrikulatu beharko da.

➤ **Iraunkortasuna**

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan matrikulatutako ikasleek hainbat helburu bete beharko dituzte urtero, banaka zein taldeka, zentroan jarraitu edota ikasturtez igaro ahal izateko.

**Lehenengo maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Lehen urteko ebaluazioa egiteko, ikasle guztiek oinarrizko 5 irakasgaietatik 3 gainditu beharko dituzte.
- 2) Talde osoak, *Rocket Model*-en jasotako oinarrizko hiru prozesuetatik, bat gainditu beharko du gutxienez: Banakako ikaskuntzarako trebetasunak II, Ekintzailetza-Barne-ekintzailetza II, eta taldeen autokudeaketa eta kudeaketa II.
- 3) Talde osoak, gainditu beharko ditu lehen urteari dagokion Learning journey ikaskuntza-bidaiaren helburuak (ikus lehen ikasturteko "ikaskuntza-bidaia" dokumentua).
- 4) Talde guztiek elkarte bat sortu beharko dute lehenengo urtean, forma juridiko gisa, proiektu erreala burutu ahal izateko. Hau, euren ikasketa proiektuaren euskarria izango da.

Gutxieneko baldintza horietako bat edo gehiago betetzen ez dituzten ikasleek, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua utzi beharko dute.

### **Bigarren maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Ikasle guztiek gainditu beharko dituzte lehen urteko irakasgaiak.
- 2) Ikasle guztiek, ekaineko ebaluaziorako, bigarren urtean emandako 4 irakasgaietatik 3 gainditu beharko dituzte guztira.
- 3) Talde osoak, *Rocket Model*-en jasotako oinarrizko hiru prozesuetatik, bat gainditu beharko du gutxienez: Banakako ikaskuntzarako trebetasunak II, Ekintzailletza-Barne-ekintzailletza II eta taldeen autokudeaketa eta kudeaketa II.
- 4) Talde guztiak gainditu beharko ditu Estatu Batuetarako ikaskuntza-bidaiaren helburuak (ikus "ikaskuntza-bidaia: estatu Batuak" dokumentua).

Gutxieneko baldintza horietako bat edo gehiago betetzen ez dituzten ikasleek unibertsitate-ikasketak utzi beharko dituzte.

Ekainean, taldeak, gutxieneko baldintza akademikoak betetzen dituela bermatzeko, urtarileko ebaluazioan, une horretara arte lortutako banakako eta taldeko emaitzen jarraipen zehatza egingo da.

### **Hirugarren maila gainditzeko, gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Ikasle guztiek gainditu beharko dituzte bigarren urteko irakasgaiak.
- 2) Talde osoak gainditu beharko ditu Txina/Indiara egindako ikaskuntza-bidaiaren helburuak (ikus "ikaskuntza-bidaia: Txina/India" dokumentua).
- 3) Talde osoak, *Rocket Model*-en jasotako oinarrizko hiru prozesuetatik, bat gainditu beharko du gutxienez: Banakako ikaskuntzarako trebetasunak II, Ekintzailletza-Barne-ekintzailletza II eta taldeen autokudeaketa eta kudeaketa II.

Oinarrizko ikaskuntza-prozesu horiek graduaren ikasketa planean islatzen dira, honako irakasgai hauen bidez: Banakako ikaskuntzarako trebetasunak II, Ekintzailletza-Barne-ekintzailletza III, eta taldeen autokudeaketa eta kudeaketa II.

Gutxieneko baldintza horietako bat edo gehiago betetzen ez dituzten ikasleek unibertsitate-ikasketak utzi beharko dituzte.

Ekainean, taldeak, gutxieneko baldintza akademikoak betetzen dituela bermatzeko, urtarileko ebaluazioan, une horretara arte lortutako banakako eta taldeko emaitzen jarraipen zehatza egingo da.

### **Gradu Amaierako Lana defendatzeko gutxieneko baldintza akademikoak**

- 1) Ikasle guztiek gainditu beharko dituzte hirugarren eta laugarren urteei dagozkien irakasgaiak. (Gradu bukaerako lanen kredituak kontuan hartu gabe) (GBL)
- 2) Defentsa burutu baino lehen, ikasleak justifikatu beharko du kide den elkarteak likidatu egin dela edo likidazio-fasean dagoela (jarduera uztea aurkeztu duela Ogasunean, eta idazpenak ezerezteko eskatu duela, dagokion Elkartearen Erregistroan). Batzorde akademikoan aztertuko diren salbuespenetan izan ezik.

Aipatutako bi baldintzetakoren bat betetzen ez duten ikasleek GBL-a hurrengo deialdian edo ikastaroan defendatu beharko dute, kasuaren arabera.

GBL-a (Gradu Bukaerako Lana) ikaslea matrikulatuta dagoen urteko deialdi arruntetan (otsaila, uztaila, iraila) edo ezohikoetan (azaroa) aurkeztu beharko da.

Adierazitako deialdietan aurkeztzen ez badu, luzapen bat eskatu beharko du idatziz, eta luzapen hori titulazioaren Batzorde Akademikoak onartu beharko du.

Luzapen hori lortzeak, aukera ematen dio ikasleari, aurkezteko epea hurrengo deialdira arte luzatzeko (arrunta edo ohiz kanpokoak). Ikaslea, dokumentazioa aurkezteko eta GBLaren defentsarako ezartzen diren datetara egokitu beharko da, eta berriz matrikulatu beharko da GBLean.

Hurrengo matrikulek ez dute berekin ekarriko dagozkien tasak ordaintzea, lehenengo matrikulaziotik bi urte igaro direnean izan ezik; kasu horretan, ikasleak, GBLeko kredituen araberrako zenbatekoa ordaindu beharko du. Salbuespenak salbuespen.

#### **GBLaren hurrenez hurreneko matrikulak egiteko baldintza akademikoak:**

Ikasleak hirugarren urteko jakintzagai guztiak gaindituta izan beharko ditu.

#### **Maila guztietan aplikatu beharreko baldintza akademikoak:**

Ikasle guztiek parte hartu beharko dute, talde barruko ohiko ikaskuntza eta garapen dinamiketan. Dinamika horiek graduan zehar ebaluatzen dira, eta ikasle guztiek parte hartu beharko dute.

Taldearen dinamika eta ebaluazioetan parte hartzen ez duten ikasleek balorazio negatiboa jasoko dute.

Gainera, aparteko ebaluazio proba bat ezarri ahal izango da ikasgai bakoitzerako hasieran ezarritako gutxienekoa lortu ez duten pertsonentzat. Ezohiko proba hori egiteko aldia, egutegi akademikoan zehaztuko da. Ezohiko probaren eskaera, idatziz egin beharko dio interesdunak koordinazio akademikoari, eta honek erabakiko du honen gainean, (onartu edo ez onartu), arduradun akademikoak eskaeraren oinarri diren dagozkion txostenak bidali ondoren.

#### **4.4. BEKAK ETA DIRU LAGUNTZAK IKASTEKO**

Informazioa: <https://www.mondragon.edu/eu/gradua-lidergo-ekintzailea-berrikuntza/prezioak-bekak-diru-laguntzak>

#### **4.5. ESKOLA ASEGURUA ETA ERAKUNDEAREN ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

Asegurua 1953ko uztailaren 17ko Legearen bidez sortu zen (abuztuaren 18ko BOE), ikasleen aldeko gizarte aurreikuspena bermatzeko; bere babes eta laguntzarako; egoera txarrei, ustekabekoei, edo aurreikus daitezkeen zirkunstantzietan, aurre egin ahal izateko.

Eskola Asegurua nahitaez ordaindu behar da, eta matrikula betetzean ordaintzen da.

Aseguru horren muga 28 urteko adina da; beraz, ikastetxeak derrigorrezko aseguru bat egingo die adin horretatik gorako ikasleei, gutxienez, Eskola Aseguruaren estaldura izango duena.

Bestalde, gradua dela-eta sortutako elkarteek, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa, eta 4.3 puntuan adierazitakoaren arabera, enpresekin proiektuak gauzatzeko, erantzukizun zibileko aseguru bat dute horretarako kontratatuta.

#### **4.6. BEKABIDE**

Unibertsitateak, unibertsitatearen laguntza publikoak eta berezkoak batzen dituen Bekabide izeneko programa berezi bat dauka. Ordainketak ikaslearen familiaren aukera ekonomikoetara egokituko dira.